

BAIONATIK BILBORA

Orain amabst urte, euskal kulturaren egoera, Iparraldean emen baino oskarbiagoa zala ta, nengoan. Azken urteotan izan doguzan aldaketei esker, egoaldeko zerua be urdintzen ari da. Euskal kultur alorrean, emen egin diran progresuak, ez nebazan, orain amabost urte, ametsetan be uste. Ezta urtik emon be! Belgietan azala bear da, au ez ikusteko.

Iparraldeko zerua, orain ostera, lainotsen ete doan, nago. Ori adierazten dabe andik datozaan ainbat barrik. Orra or, Baionako gotzaineren berbak. Txalotzekoa da Pierre Molereseke Baionako katekistei egindako itzaldia. Beste gauza eder askoren artean, au inotsen, irailaren 2an, euskaldun katekistei:

«Aintzagarriztat euki bear dozue zeuon kultura, zeuon tradizioak ta zeuon izkuntza».

Ta euskaldun ez diran katekistei beste egi biribil oneck gogoratuko dautseez:

«Kontuan izan bear dozue, euskaldunak euren etxean bizi dirala. Oso erreza da Aita Santua txalotzea Australiako edo Ameriketako indioen kultura ta eskubideak defenditzen dabezanian, edo Egoafrikako apartheid lotsagarriaren aurka berba egiten dabean. Gogoan euki bear dozue bi kultura daukazan erri baten bizi zareala. Jakin egin bear dozue ta onartu gainera, euskaldunak euren lurraldean bizi dirala ta eskubide osoa daukeela euren

kultura, tradizioa ta izkuntza erabili, zaindu ta indartzeko. Euskaldun izatea ez da terrorista izatearen seinala, kultura bizi ta etorkizun beteriko erri txiki baten seinale baino. Onetaz be, Eleizaren dotrina ta jokabidea ikasi ta onartu egin bear dozuez, ta ez ibili gotzainaren aurka, ez dakit zelako ideologiaz manipulauta asmatuaz, ixeka ta irainka jardun».

Iparraldeko giroa euskal kultur mailan ez da ain eroso. Frantzian be «txakurrak ortozik». Ai Frantzia, Frantzia! Ez itzali, ez amatau Baionako Gotzainaren argi-txinpartak.

Bilbora

Gaur egun, gure artean ez dago beste munduko eragozpenik euskal nortasuna errespetatu, bultzatu ta sustatzeko. Eleiz mailan, ofizialki ez beintzat. Bilboko Eleizbarrutia lekuko. Batzar Nagusiak artu dabezan erabagiak ikustea baino ez dago. Azken iru urteotan ospatu izan dogun Batzar Nagusiaren barririk ixeridikuetan eta beste komunikabideetan agertu ez, bere elburu nagusiak ta ekintza praktikoak, euskal kulturarentzat emankorrak baino emankorragoak izango dira. Ogeitaseigarren elburu orokorrak auxe diñosku:

«26.1 «Kulturaren ebanjelizazioa dala eta, Kontzilioan eta Elizaren irakasietan onarriturik, katekesi bereziak zabaldu».

26.2 «Ebanjelioa kultura era barrietan sustraitu, euskeraz eta erderaz ebanjelizatze lanaren eskabide lez».

26.3 «Ebanjelizatze lanean, euskera eta euskal kultura bultzatu, inguru eta une guztietan Elizak bizi bear daben presentziaren izenean».

26.4 «Kristau alkartasunaren ezaugarri lez, eta Bizkaiko erriaren alkartasunari laguntzako asmotan, izkuntzaz eta kulturaz, euskal eta erdal ezaugarriak mantendu eta pastoral ekileen elebitasun eragin».

26.5 «Gure Eliza Euskal errian geiago sustraitu daiten eta bere ebanjelizatze lanari obeto erantzun daion, Batzar Nagusiak auxe eskatzen dautse Elizbarrutiko arduradunei: euskal eliz pro-

bintzia sortzeko pausuak bizkortu daitezala».

Guzti au elburu orokorretan agertzen da. Ortik kanpo, elburu berezietan be antzeko erabagiak daukaguz. Bostgarren gaiak kristau alkartea eta gogorkeriaren alorrean, beste au dino:

4.3 «Kultura bien (gaztelania eta euskalduna) balorazio soziala bultzatu, laguntzarik makalena daben izkuntza eta kultura (euskal mundua) bultzatzen jardunez».

Irakaskintza munduan be badago makina bat zeregin. Bat baino geiago Batzar Nagusiaren ustetan:

4.1 «Ikasleak ezi egin bear dira kultur ezbardinak gure Alkar-tearen aberastasun lez onartu dagiezan».

4.2 «Gure Elizbarrutiko ezitzaile kristauek euren eginkizuna betetzen aalegindu bear ko dabe euskal kultur mundua eta beste kultur batzuen eurenaganatuz, leku eta egoera bakoitzeko apartekotasunen arauz; zientzi munduan osotuko dabe, eta azkenez, euren kristau fedearen ikuspegitik eurenaganatuko dabe guzti ori».

4.3 «Eskolatik bentatik aldeztu bear ko dabe ezitzaileek erri bakoitzak bere kultur nortasuna jagoteko daukan eskubidea; gizarteko gorabeera ezbardin eta alkarren aurkako direnen aurrean ere alkarizketa eta alkar ulertze jarrerak landu, eta gogorkeria sortzen daben burugogorkeri era iisukerian edozein agepen aurrean zentzun kritikua bultzatu. Bide onetatik, izkuntza eta kultura alderdien estrategia lez erabiliak izatea galazo».

4.4 «Gizarte indar guztiak (guraso, ezitzaile, erakandu pribatu era publiku) eskatu bear dabe: eskola guztietan onartu eta bardin baloratuak izan daitezala euskal eta euskaldun ez diren kultur bereizgarriak, zapalkuntza ta baztertze barik».

4.5 «Irakaslegoaren euskalduntzea bultzatu bear da».

Kristauen presentzia erri bizitzan aztertzen daben gaiak, euskal kulturari buruz beste erabagi oneek onartu ditu:

22. «Kristauok fede eskabidetzat onartu bear dogu gure gizartean dagoan kultura pluraltasuna. Orretarako egokia dala dirudi ezierazko bideok praxian jartzea».

22.1 «Batikano Hgarrenaren eta Eleiz Magisteritzan oinarrituri-

ko katekesi bereziak zabaldu kultura ezbardinen ebanjelizatzeari buruz».

22.2 «Ebanjelioa kultura-modu barrietan gorpuztu, bai euskera moldez bai erdera moldez».

22.3 «Gure gizarteko kultura pluraltasuna aberasbidetzat artu eta ez jazoera nabarmentzat, au da, gauregungo indarren koerlazioak dirauen arteinokoan jasangarri daitekeena».

22.4 «Euskal kulturaren eta euskeraren garapena sendotu ebanjelizatze eginkizunean, Elizak une bakoitzeko gizarte errealitatean izan bear dauan presentzia bizitzat».

22.5 «Bizkaiko gizarte bateratuan, bakezko bizitza lagundu gura dauan fede komunitatearen pluraltasuna bat eginik bizitzaren seinaleztat izkuntz eta kultura adierazpide euskaldun eta erdaldunari eutsi egin bear jako eliz batzar eta ekintzetan».

Bilboko Elizbarrutia oso osoan euskal kulturaren alde daukagu. Ez oraindik, leendik be ala moduko elebitasuna praktikatzen ebanik, ezin ukatu. Batzar Nagusiaren ondoren, Bizkaiko eleiztarrok jakin badakigu nondik nora jokatu, Kristo berbera gudan «euskaldun» izan daiten. Orixo da izan be Eleizaren dotrina. Madrilgo Arias Navarrok ta Bilboko Pilar Careaga alkatesa oiak Eleizaren dotrina ori jakin izan balebe, Don Antonio Añoverosen (G. B.) itzaldi sonatuaz ezeben ainbeste zalaparta barrengarri atarako.

Zenbat bider Juan Pablo Igarrenak gogoratzen dauan Eleizaren dotrina ori. Ixe bere bidai-pastoral guztietan. Urriaren 20an, Kanadako lurraldeetan, Denengo inuit ta metis biztanlei egindako itzaldia, berbaz berba, aplikatu geinkio Euskalerritari be. Bere burujabetasuna ta autodeterminazioa ukatu barik, gainera! Euskaldun eleiztar nai badogu izan, begiak zorrotz ta belarriak tente!

A. Olea